

ASTEKARIA: 26. atala

DATA: 2024/12/20

GUREAN

SAN TOMAS EGUNA

Pasa den asteburuan, San Tomas eguna ospatu genuen Larratxoko plazan. DBHko 4.mailako ikasleek eta familiek postua montatu zuten ikasbidaiarako dirua biltzeko asmoz. Bihar, Donostiako Gipuzkoa plazan eskainiko dituzte txistorra pintxoak eta sagardoa. Ikastolako postua 72.a izango da eta goizeko 10:00etatik arratsaldeko 20:00ak arte zuen zain egongo dira. Gainera, Donostiara hurbiltzea plan bikaina izan daiteke, izan ere, jarduera-aukera zabala izango da. Aurten, 162 postu jarriko dira guztira. Bertan janari, eskulangintza eta beste hainbat produktu erosi ahal izango dira.

GURE INGURUAN

ERRENTERIAKO NEGUKO SOLSTIZIOA - SAN TOMAS EGUNA

NON: ERRENTERIA
NOIZ: ABENDUAK 21



Urtero ospatzen den egun honetan, tokiko baserriek ematen dituzten produktuak dastatzeko, ikusteko eta erosteko aukera izango da baserritar nahiz artisauen postuetan. Gainera, txistorra edota taloa erosteko toki ugari egongo dira eragileen postuetan. Horretaz gain, herri-kirolak, trikitilariak eta ekintza ugari izango dira. Ez ahaztu zure baserritar jantzia!



OLENTZERO... GURE AUZOAN!

NON: IKASTOLATIK ALTZARA
NOIZ: ABENDUAK 24

Urtero bezala, Olentzero eta Mari Domingirekin egindako kalejira abenduaren 24rako antolatu dute ikastolako familiek, langileek eta ikasleek. Ordutegia 10:00etatik 12:30era izango da eta hauxe da ibilbidea: Juan XXII hiribidea, Pasai San Pedro hiribidea, Jose Elozegi biribilgunea, Los Olmos enparantza, Jose Elozegi hiribidea, San Luis Gonzaga plaza, Larratxo ibilbidea, Leosiñeta kalea, Lauazeta kalea eta San Martzial plaza. Ibilbidea bukatu ondoren, gaztainak jatera gonbidatuta zaudete!

